



7BBB. ZAZPI, BURU BETE BAZPI

Marrakzi bizidunetako DVD-a.

Euskaraz olgetako kantuak eta kanpo-jolasak.

Adina: 3 urtetik aurrera

Iraupena: 80´

Marrakzi bizidunen DVD bideo honetako protagonistak zazpi dira: Txinpart izeneko errobo, Naia eta Maia bikiak, Eustaki astotxoa, Tartalo begibakarra, Xaxa neskato afrikarra eta Txiki behi apala. Eurekin batera jolastuko zara, hainbat kantu eta jolas ikasiko dituzu, karaokea kantatuko duzu...



JOLASAK:

Kanpoan, lagunekin batera, aldran jolasteko jolasak dira bideo honen bitartez zabaldu nahi ditugunak. Sarritan soka-saltorako, esku-jolasetarako, eta beste hainbat kanpo-jolasetarako erdarazko eredueta jotzen dugu. Hemen proposatzen dizuguna bikoitza da: batetik, euskarazko kantuak erabiltzea kanpo-jolasetarako eta, bestetik, herri-tradizioko kantuak erabiltzea kantu legez. Ez da lan makala, gero!

MENU OROKORRA



Hasi menu honetako izenburuan dagoen gezia aukeratuta, pelikula oso-osorik ikusiko duzu, hasi eta amaitu. Honez gain, beste hainbat aukera dituzu berton:

- Abestiak: Abestiak banan-banan ikusteko edo aukeratzeko.
- Karaokeak: Abesti guztien karaokeak ikusteko.
- Pertsonaiak: Bideoko pertsonaia protagonistak ezagutzeko.
- Azalpenak: Kantu guztiei buruzko azalpenak ikusteko.

ABESTIAK:

Atal honetan, hamar abestien animazioak ikusi ahal dituzu. Kantu bakoitzerako jolas bat proposatzen dizugu. Hona hemen, adibide gisa, batzuk:

AXUN KLA-KLA



BAT MATXIN PARRAT




MARI ANDRESAREN KOROTZA



DIN-DAN



KARAOKEA



Kantuak ikasteko edo besterik gabe ondo pasatzeko, kantuen karaokea prestatu dugu. Zeuk aukeratuko duzu irakurtzeko zer-nolako letra mota nahi duzun , larria ala xehea, eta zer-nolako audioa , hau da, kantariaren ahotsa ere entzun nahi duzun ala bakarrik bertasio instrumentala nahi duzun.

Hala nahi izanez gero, mikrofona ere erabil daiteke, aukera hau ematen duten DVD irakurgailuetan.

AZALPENAK

KUKU-MIKU

Biribiltxua	Biribiltxoa. Alkateaz ari dela ematen du.
Hazixe	Hazia.
Urregorrix	Urregorria, urrea. Toki batzuetan urrea erabiltzen da izen generiko legez eta, urregorria eta urrezuria desberdinu egiten dira: urregorria urrea da eta urrezuria zilarra.
Amumatxuak	Amonak baleki, jakingo balu.
balekixe	
Ateako leistake begixe	Aterako lidake begia.
JATORRIA:	Bizkaiko kostaldea, Ondarroa eta inguruetakoa.

Atal honetan kantu bakoitza hobeto ulertzeko behar den informazioa aurkituko duzu. Batez ere hizkuntzari lotutako argibideak ematen dira atal honetan, baina aipamen etnografiko batzuk ere agertzen dira, aspaldiko garaietako ohiturak-eta azalduz, kantuon hitzak aitzakia legez erabilita.

KREDITUAK

Edukiaren garapena: Nerea Arregi

Informatika arduraduna: Igor Tellitu

Diseinua, errealizazioa eta animazioa: Mikel Louvelli

Hizkuntza Aholkularitza: Lierni Landa eta Asier Irizar

Musikariak:

- Aitor Furundarena: akordeoia, koroak, sintetizadoreak eta produkzio artistikoa.
- Bihotz Gorospe: ahotsak.
- Dani Venegas: gitarra eta mandolina.

Katuen Testamentua izeneko bilduma erabili dugu oinarri legez bideo hau egiteko. Bilduma hori Labayru Ikastegiak eta Ikastolen Elkarteak elkarlanean garatu genuenez, eskerrak eman nahi dizkiogu Labayru Ikastegiari, material hori erabiltzen uzteagatik. Eta egitasmoan parte hartu zuten lagun guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiegu.